



Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2025eko apirilaren 8a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

Anjel Lertxundi

(Orio, Gipuzkoa, 1948)

Anjel Lertxundi Esnal edo Andu Lertxundi Orion jaio zen 1948an. Donostiako Apaiztegian egin zituen ikasketak. Magisteritza ikasketak egin zituen Donostian, eta Filosofia eta Letrak lizentziatura Erroma eta Valentzian. Irakasle izan zen Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastolan, eta bertako zuzendari lau urtez. Zarautzen bertan bizi da umetatik. Euskal Literaturaren eta Literatura Unibertsalaren irakasle ere izan zen Donostiako Elizbarrutiko Majisteritza Eskolan 1979-1989 urteetan.

Idazle lanetan, bi ezizen erabili izan ditu: Andu —aitaren baserriaren izena— eta Iñaki Aldai. Hitz-jokoan zalea, hiztegia iraultzeko eta aberasteko bultzatzaile nekazina da.

1970ean argitaratu zuen lehen liburua: **Hunik arrats artean**, ipuin bilduma. Orduetik hona, etenik gabe joan da hazten bere literatur ekoizpena. Bere literatur lanari dagokionez, harrezkero, nobelaz eta ipuin bildumaz gainera, artikulugintza, saiakera eta haur eta gazte literatura landu ditu. Kazetari ere ibilia da, **Eginen** sorrerako lehen urtean, eta gero kolabartzaile gisa **Egunkaria**, **Berria**, **Diario Vasco**, **El País**, **El Mundo**, **La Vanguardia**, **Diario 16**, **El Correo**, eta hainbat aldizkaritan. Literatur eta zine kritika ere egin du, hainbat egunkaritan.


Birritan irabazi du Euskadi Saria (**Hamaseigarrenean, aidanez** eta **Argizariaren egunak**) eta beste bi alditan Kritika saria (**Kapitain frakasa** eta **Hamaseigarrenean, aidanez**).

Zinemaren munduan ere murgildu eta bi film zuzendu ditu: 1985ean **Hamaseigarrenean, aidanez** (izen bereko bere liburuan oinarritua) eta 1987an **Kareletik**.

Euskal Idazleen Elkartearen sorreran, 1982an, erakundearen presidente izendatu zuten, eta kargu hartan aritu zen 1985 arte. Euskaltzain urgazlea da, eta euskaltzain oso izendatzeko proposatu dute.

2010ean Espainiako Literatura Sari Nazionala irabazi zuen, saiakera arloan, **Eskarmentuaren paperak** lanarekin.

Hamaseigarrenean, aidanez



Ez nuen leihorik ireki behar izan gertatuko zitzaidana ezagutzeko, horixe da eleberriaren lehen perpausa. Martzelinaren bihozkada hori nagusitzen da hasiera-hasieratik; eta nobela zehazki ez dakigun gertakariaren inguruko informazioa antolatzen igaroko da. Baserri giroko tragedia bat da eleberri hau. Indarrean eta afanean oinarritzen den kontakizuna: apostulari baten heriotza du gertaera nagusi. Pertsonaia desberdinen eta ikuspuntu desberdinetan oinarrituz, emakume baten bakardade eta sofrimenduaren ikuspegi sakona eskaini du idazleak. Ikuspuntuaren erabilera erabakigarria gertatzen da.

Anjel Lertxundiren idazlanak (hautaketa)

Hunik arrats artean (1970)
Goiko kale (1973) **N LER**
Hamaseigarrenean, aidanez (1983) **N LER**
Tobacco days (1987) **N-4 LER**
Kapitain Frakasa (1991) **N LER**
Otto Pette (1994) **N LER**
Argizariaren egunak (1998)
Zorion perfektua (2002) **N LER**
Ihes betea (2006) **N LER**
Eskarmentuaren paperak (2009) **M LER**
Etxeko hautsa (2011) **N LER**
Paper festa : minimalia (2012) **N LER**
Zu (2015) **N LER**
Horma (2017) **N LER**
Zoaz infernura, laztana (2018) **N LER**
Desertuan behatxuloa (2022) **E LER**
Berbelitzen hiztegia (2024) **N LER**

Kritikak esandakoak

“...Beti irakurtzekotan (Institutuan ez zitzaidan egokitu), eta azkenean heldu zait ordua. Esan bezala, 80. hamarkadako libururik aipagarrienetakoa dugu Anjel lertxundiren hau, Lertxundiren lan oparoaren artean ez ezik, euskal literaturaren historian ere lekutxo duena. Oriotarraren lehenengo eleberria (edo), ipuinak nagusi izan omen ziren hamarkadan argitaratua (Narrazioak, Dudular, Obabakoak, Azukrea belazeetan...).

Eleberri laburra, argumentu ximple samarra duena, baina oso ondo egituratuta eta kontatuta dagoena. Ahots eta narratzaile ugari, egituraketa eta teknika narratiboa bikain erabiliak...

Goiz euritsu batean, Martzelinak presagioa dauka: “senarra gaur hilko zait”. Hortik abiatuta, Martzelinaren istorioa kontatuko zaigu. 30 urte lehenago herrira iritsia, ezer gabe, herritarrek harrera hotz samarra (leun esatearren) eman zioten. Txutxumutxuak nagusi (irakurleari ez zaio garbi geratuko benetan zer eta zergatik), herriko gehienek ateak itxi zizkioten. Gizona aukeratzeko orduan ere ez zuen egokiena aukeratu, Domingo, zurrutero jokozalea. Ondoren ere ez zaizkio gauzak asko hobetuko: haurra galduko du, amaginarreba hil egingo da,... Martzelinaren drama pertsonalaren eskutik herriko giroa eta garaiko bizimodua ezagutuko ditugu (garai bateko euskal herri txiki bateko giro itxia), eta jokoaren zama azpimarratuko (“jokoa ez da errenta”).

Kontalari nagusia idazlea da. Domingo protagonistaren senide bat, gertatutakoaren kronika modukoa egin nahi duena. Horretarako lekukoei emango die hitza, ahots eta ikuspegi kaleidoskopikoa iradokiz. Orain lehenengo pertsonan, orain hirugarrenean; orain idazlearen hitzetan, orain lekukoenean zuzenean. Hasieran lekukoak bakarrik agertuko zaizkigu, bakoitza bere bertsioa emanez; gero, narratzailea nagusitzen joango da.

Gabriel García Márquezen Crónica de una muerte anunciada gogoratzen digu hasieratik. Lehenengo parafotik dakigu Domingo hil egingo dela, eta gertakizunen kronika modukoa emango zaigu. Ikuspegi ezberdinetatik, egia borobilik ez dagoelako; ez oso modu harilkatuan, gehiago adabakiz jositako errelatoa eginez. Baina azkenean collage horrek margolan osoa erakutsiko digu, eszena osoa irudikatuko (nahiz eta hari asko irakurlearen esku ere uzten dituen idazleak).

Artelan gogor bezain ederra.”

Asier Sarasua / Eibartik, 2013-01-02

Erabilitako iturriak

Wikipedia

https://eu.wikipedia.org/wiki/Anjel_Lertxundi

Kritiken hemeroteca

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5830>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=3862>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=3870>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=2957>

Literaturaren zubitegia

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=85>

EHU

<https://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=635>

Euskal Idazleen Elkarte

<https://idazleak.eus/eu/bazkideak/anjel-lertxundi-esnal>